



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

ERANSKINA

HUTSIK DAUDEN LANPOSTUAK ALDI BATERAKO BETETZEKO OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da Datuak Babesteko Euskal Bulegoan dokumentazio eta informazio teknikariaren lanpostua aldi baterako betetzea Eusko Jaurlaritzaren lan-poltsa honetako langileekin: GOI MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA: ARTXIBOZAIN, LIBURUZAIN ETA DOKUMENTAZIO ESKALA, 4. hizkuntza-eskakizunarekin.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari lan-poltsa horietako lehenengo kideen zerrenda eskatu zaio, egin beharreko kontratazioa eskain diezaien.

2. Lanpostuaren eginkizunak.

Honako eginkizun hauek esleitzen zaizkio deialdiko lanpostuari:

- Liburutegi Zerbitzua eta Dokumentazio Zentroa planifikatzea, diseinatzea, irizpideak ezartzea eta antolatzea.
- Erakundearen Dokumentuak Kudeatzeko Sistema (Artxiboa) planifikatzea, diseinatzea, irizpideak ezartzea eta antolatzea.
- Informazioa kudeatzeko sistemak diseinatzea eta sortzea.
- Erabilzaileen prestakuntza, dokumentazio zerbitzuak eta bestelako informazio iturriak ondo erabil ditzaten, datu baseak eta Internet barne.
- Edukiak planifikatzea eta kudeatzea zabalkunderako kanaletan (Interneteko eta intraneteko web orriak, sare sozialak eta abar).
- Informazioari eta dokumentazioari buruzko balorazio txostenak egitea.
- Dokumentazioaren, liburutegien eta kulturaren arloko beste entitate batzuekiko lankidetzak proiektuak kudeatzea, zerbitzuari dagozkion gaiei buruz.

3. Izangaiak

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako zerrendatik, prest dauden lehenengo bost pertsoneri eskatuko zaie euren curriculuma aurkez dezatela, baldin eta prozesuan parte hartzea onartzen badute. Curriculum horretan azalduko dituzte merezimenduak, horien egiaztatagirikin batera (jatorrizkoak edo kopia konpulsatuak).

Gainera, NANaren edo identifikazio-agiri ofizial baten kopia ere aurkeztu beharko dute.

Agiri horiek Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkeztu beharko dira: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71-3, Vitoria-Gasteiz. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren 16.4 artikuluan zehazten diren lekuetako batean ere aurkeztu ahalko dira.

4. Hautaketa eta proposamena, hautaketa-batzordeak egin beharrekoa.

Hautaketa-batzorde batek baloratuko ditu merezimenduak. Batzordeak kide hauek izango ditu:

- Burua: Pedro Alberto González González
- Batzordekidea: Ana Aperribai Ulacia
- Idazkaria: Román Intxaurtieta Madariaga

Idazkariak hitz eta boto eskubidea izango du. Edonola ere, bere eginkizunak burutzeko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko administrazio-zerbitzuen laguntza izango du.



Hautaketa-batzordeak izangaiak aztertu eta baloratuko ditu, baita haiek aurkezten dituzten curriculumak ere, izangaien lanbide-profila eta gaitasunak deialdiko lanpostuetarako egokiak diren erabakitzeke.

Lanposturako eskatzen diren baldintzetara ahalik eta ondoen egokitzeko beharrezkoak diren gaitasuna, prestasuna, lanbide-esperientzia eta bestelako inguruabarrak baloratuko dira. Izangaiak gehienez 10 puntu lortu ahaliko dituzte.

Hautaketa-batzordeak proposamen bat prestatuko du, puntuazioaren hurrenkeraren arabera. Proposamen hori Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari igorriko zaio, hark Datuak Babesteko Euskal Bulegoko bitarteko funtzionario izendatzeko ebazpena eman dezan, hala badagokio. Hain zuzen ere, ebazpen hori prozesuan parte hartu dutenei jakinaraziko zaie.

Hautaketa-batzordearen jardunbideak urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenaren 15. artikuluan eta hurrengoetan zehazten diren arauak beteko ditu.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenaren 23. eta 24. artikuluetan zehazten diren inguruabarrak gertatuz gero, hautaketa-batzordeko kideak abstenitu egin beharko dira edo errekusatua izan ahaliko dira.

5. Izendatzea.

Funtzionario izendapen honek balioa izango du interesduna lanpostuaz jabetzen denean, eta balio gabe geratuko da lanpostua karrerako funtzionario batek betetzen bada –otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 11.1 artikuluan arabera–, amortizatzen bada edo deialdiaren xede den lanpostua aldi baterako betetzeko arrazoi izan ziren behar-arrazoiak desagertzen badira eta, nolanchi ere, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 10.1 artikuluan ezarritako 3 urteko gehieneko epea igarotzen bada, salbu eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 10.4 artikuluan azaltzen diren inguruabarretako bat gertatzen bada.

6. Datuen babesari buruzko informazio-klausula.

Tratamendu-jarduera	Giza-baliabideen eta nominaren kudeaketa
Tratamenduaren arduraduna	DBEB – Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
Harremanetarako datuak	Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71-3 - 01008 Vitoria–Gasteiz https://www.avpd.eus - Tel.: 945 016 230
Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jartzeko datuak	dpd-dbo@avpd.eus
Tratamenduaren helburuak	DBEBren giza-baliabideak eta nomina erregistratzea eta kudeatzea.
Oinarri juridikoa	Ahal publikoak egikaritzea: tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko (Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua).
Interesdunen kategoriak	DBEBn lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetako parte-hartzaileak.
Datu pertsonalen kategoriak	Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak.



	Enpleguari eta administrazio-karrerari buruzko xehetasunak. Datu akademikoak eta lanbide-datuak: titulazioak, prestakuntza eta lanbide-esperientzia.
Hartzaileen kategoriak	Deialdia arautzen duten lege-arauetan aurreikusitako publikitatea.
Nazioarteko transferentziak	Ez dago nazioarteko datu transferentziarik aurreikusita.
Ezabatzeko epeak	Datuak gorde egingo dira, bildu zireneko helburua betetzeko eta helburuaren eta datu tratamenduaren ondorioz izan litezkeen erantzukizunak zehazteko behar adina denbora, ez gehiago.
Segurtasun-neurriak	Urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren, Segurtasun Eskema Nazionala arautzekoaren II. eranskinean (Segurtasun Neurriak) xedatutako neurriak ezarriko dira.
Informazio gehiago	Tratamendu-jardueren erregistroa

7. Aurkaratzea.

Interesdunek oinarri hauek eta berorietatik ondorioztatzen diren egintza guztiak aurkaratu ahalko dituzte indarrean dagoen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenean ezarritako modu eta epeetan.